



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Calixto Bieitok oholtzara eramango du Shostakovichen 14. sinfonia zoragarria, Annette Dasch eta Leigh Melrose bakarlari handiek BOSekin batera interpretatuta

- SHOSTAKÓVICH 14 Arriaga Antzokiaren produkzio propio berria da, eta Alejo Pérez maisu argentinarraren zuzendaritza musikala du, zeinak bere batutarekin Bilbao Orkestra Sinfonikoa gidatuko baitu.
- Bieitok poesiaz eta sinbolismoz jositako eszenaratze bat proposatzen du, Barbora Horáková Joly-k diseinatutako eszenografia eder eta ikusgarri bat oinarritzat hartuta.
- Shostakovichen 14. sinfonia maisulan bat da, bizia eta sakonki introspektiboa: heriotzaren gaia jorratzen du eta musika zaintza eta akonpainamendu ekintza bihurtzen du.
- Shostakovichek berak Federico García Lorca, Guillaume Apollinaire, Wilhelm Küchelbecker eta Rainer Maria Rilkeren testuekin konbinatu zuen musika, zeinak indar handikoak eta hunkigarriak baitira Annette Dasch eta Leigh Melroseren ahotsetan.
- Ikuskizunean Leioa Kantika Korala abesbatzak parte hartze berezia egingo du, Basilio Astúlezek zuzenduta, eta kontrapuntu musikal eta estetiko interesgarri bat eskainiko dio proposamenari.
- Arriaga Antzokiak ostiral honetan egingo du ikuskizunaren estreinaldia, ekainaren 19an, 19:30ean, eta bigarren emanaldi bat eskainiko du larunbatean, hilaren 20an, ordu erdi lehenago, 19:00etan.

Bilbon, 2026ko ekainaren 16an.- Arriaga Antzokiak produkzio propio baten estreinaldi handi baten aurretik izan ohi den emozio berezia biziko du egunotan. Oraingo honetan, **Calixto Bieito** zuzendari artistikoak zuzendutako proiektu bat da, eta **Dmitri Shostakovich** (1906-1975) konpositore errusiar handiaren azken-aurreko obra sinfonikoa oholtzaratuko du, 14. sinfonia sol minorrean, op. 135. Hori dela eta, asteburu honetan (ekainaren 19an eta 20an, ostiralean eta larunbatean) estreinatuko den ikuskizunak **Shostakóvich 14** du izena.

Alejo Pérez maisu argentinarraren zuzendaritzapean, **Bilbao Orkestra Sinfonikoak (BOS)** maisulantzat hartzen den pieza horren partitura interpretatuko du, nazioarteko lehen mailako bi ahots bakarlariarekin batera: **Annette Dasch**, jada 2024an *Die ersten Menschen*-en egindako interpretazioarekin Arriagako publikoa liluratu zuen soprano alemaniarra; eta **Leigh Melrose**, baritono britainiarra, 2023an Arriaga Antzokiaren beste ekoizpen propio batean, *Orgian*, bere arrastoa utzi zuena. Orain, bi abeslari

horiek indarrak batu dituzte *14. sinfonia* interpretatzeko. Obra bizia da, sakonki introspektiboa eta hileta izaera du: Shostakovichek 1969an konposatu zuen, bere azken etapa sortzailean, eta bere polifoniagatik eta ahots mailan oso zorrotza den muturreko musika hizkuntzagatik nabarmentzen da. Jatorriz soprano, baxu, hari eta perkusiorako idatzia, formatu tradizionaletik urruntzen da sinfonia hau, eta orkestrakantuen ziklo batera hurbildu. Musikalki, handinahikeriari uko egiten dio ehundura biluzi, tenkatu eta adierazkor bat bereganatzeko, non instrumentu bakoitzak rol dramatikoa duen. **Lorca, Apollinaire, Küchelbecker eta Rilke** idazleen hamaika poematan oinarritua dago. Shostakovichek osasun-arazo larriak izan ondoren idatzi zuen lan honetan, hilkortasunari buruz hausnartzen du, gordin eta apaingarririk jarri gabe. Errusieraz konposatu bazen ere, poesiaren hizkuntzetan abestutako bertsioa baimendu zuen egileak: espainieraz, frantsesez, errusieraz eta alemanes; eta hórrela entzungo dugu Daschen eta Melroseren ahotsetan. Bitxikeria gisa, Shostakovichek *Hamalaugarrena* bere lagun min Benjamin Britteni eskaini zion, zeinak mendebaldean egin zen piezaren estreinaldia zuzendu baitzuen 1970eko Aldeburgeko Jaialdian.

Aparteko opari bat

Shostakóvich 14 ikuskizunak aparteko opari bat dakar, **Leioa Kantika Korala** abesbatzaren eskutik eskainiko duena. **Basilio Astúlezek** zuzendutako ahots talde gazteak ez du Shostakovichen *14. Sinfonia* interpretatuko, baina Bieitok diseinatutako eszenaratzean integratuko da, eszena batzuk sinbolismoz janzteko eta, aldi berean, kontrapuntu musikal eta estetiko interesgarria eskainiz.

Calixto Bieitoren mezua

“Anette Dasch-ek Shostakovichen 14. sinfoniaz hitz egin zidanean, ez nuen ondo ezagutzen maisu errusiar handiaren lan hori, egia esan. Baina, oso hunkituta geratu nintzen, Shostakovichen musikarekin eta hark Federico García Lorcaren, Guillaume Apollinaireren, Wilhelm Küchelbeckeren eta Rainer Maria Rilkeren testuak ardatz hartuta egindako konbinazioarekin lanean hasi nintzenean.

Musika hau musikagilearen amildegitik idatzita dago beharbada, baina baita gizakiarekiko nolabaiteko leialtasun tematian oinarrituta ere, eta heriotza bidegabe orok bizidunak desitxuratzen dituela gogorarazten digu. Elias Canettiren lanetan bezala, intsumisio bat hautematen da haren barruan, matxinada bat: heriotzak azken hitza duela onartzeari uko egitea.

Testu hauek ez digute hiltzen irakasten. Olerki bakoitza datu soil bat izan nahi ez duen pertsona bat da. Musika-esaldi bakoitzak goizegi desagertzen den bizitza bati eusten dio, esku neurritsuz. Musikak ez du salbatuko, baina gezurrik esan gabe lagunduko dio. «Bakarrik zaude, bai, baina ez zaude abandonatuta» esango balio bezala. Eta musika zaintza-ekintza bihurtzen da. Ez du sendatzen. Ez du salbatzen. Baina lagundu egiten du. Hiltzen denari, geratzen denari, zentzurik aurkitu ez arren egun bat gehiago bizitzeko tematzen denari laguntzen dio. Eta hori —anestesiatzan duen mundu batean— maitatzeko modu erradikal, lehor eta oso bihozbera bat da”.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 24 eta 48 euro artean (beherapenekin).
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Shostakóvich 14

Musika-zuzendaritza: **Alejo Pérez.**
Eszena-zuzendaritza: **Calixto Bieito.**

Ahots bakarlariak: **Annette Dasch, Leigh Melrose.**
Orkestra: **Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS).**

Abesbatza: **Leioa Kantika Korala.**
Abesbatzako zuzendaria: **Basilio Astúlez.**
Piano-jole laguntzailea: **Adrián Salinero.**

Eszenografiaren diseinua: **Barbora Horáková Joly.**
Argiztapenaren diseinua: **Michael Bauer.**
Jantzien diseinua: **Oscar Armendariz.**
Zuzendari laguntzailea: **Juana Lor.**

Arriaga Antzokiaren ekoizpen berria.
Estreinaldia Arriaga Antzokian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus